EUSKARA PLAN ESTRATEGIKOA ETA HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK: 2025-2027 KUDEAKETA PLANA

ARDATZA	ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZA OROKORRAK	EKINTZA ZEHATZAK	ARDURADUNA	HARTZAILEAK	EZARTZEKO EGUTEGIA	JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	ESPERO DIREN EMAITZAK	NOIZ EGINGO DA EBALUAZIOA?
1. KUDEAKETA										
	1.0.1. Euskararen kudeaketa orokorra		• Euskararen kudeaketa txertatu Batzar Nagusietako kudeaketa-sistema orokorrean.	E1: Hizkuntza-irizpideak onestea eta eranskinak prestatzea, egunero sistematikoki erabilgarriak izan daitezen.	Euskara talde teknikoa, prestaketa lanetan, eta Mahaia --onespenari begira.	Langileak, erabiltzaileak eta herritarrak.	Euskara Plan Estrategikoa prestatzeko azken fasean.	Talde teknikoak prestatu eta Mahaiakk, onetsi. BAI/EZ.	Planaren osagarri diren dokumentuak prestatzea eta egunerokoan erabilgarriak diren oharrak izatea, planeko ekintzen orokortasunetik zehaztasunera jaisten direnak.	Behin, 2025eko udaberrian, dokumentuak onetsiko diren ala ez onartzen denean.
		• Plan estrategikoak eta kudeaketa planak kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta jarraipen sistematikoa egitea bai planari eta baita hizkuntza irizpideei ere.	• Arduradun politiko eta teknikoa izendatu	E2: Dokumentu hau prestatu, alor guzti hauek jorratzen dituena.	Euskara talde teknikoa.	Euskara talde teknikoa.	Euskara Plan Estrategikoa prestatzeko azken fasean.	Talde teknikoak dokumentu honek, planak berak eta irizpideek eurek dutena aintzat hartuta, dagokion unean, bereziki urtero, martxoan, betekizun-mailaren jarraipena egingo dute, dagozkion txostenak Mahaiari igorriz.	Kudeatzeko sistema egituratua izatea eta, hala, uneoro jarraipen eraginkorra bermatzea, betekizun mailarik handiena lortzearren.	Urtero, martxoan.
	1.0.2. Lidergoa	• Plan estrategiko eta kudeaketa-plana kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta parte-hartze aktiboa sustatzea planak barne-hartzen dituen urrats guztietan; diseinuan, garapenean, jarraipenean eta egokitzapenean.	• Ardurak zehaztu eta argi eta garbi banatu (nork, zer egin behar den, noizko, nola...)							
			• Jarraipenerako prozedura ezarri.	E3: euskara@jggalava.eus bezalako posta elektronikoko helbide bat sortu eta ezagutzera eman, baita bertan jasotzen diren urraketei eta proposamenei erantzuna ematea ere.	Euskara talde teknikoa informatikarekin batera.	Herritarrak, erabiltzaileak, langileak...	Lehen urtea.	Helbide hori sortu den ala ez bermatzea, zer-nolako erabilera izan duen ikustea eta jasotako komunikazioen zenbatekoa neurtzea, baita horiei eman zaien erantzuna ere.	Herritarrekin eta erabiltzaileekin uneoro komunikatzeko bide eroso eta irisgarri bat irekita izatea, euskararen normalizazioari dagozkion kontuak jorratzeko eta proposamena jasotzeko eta balizko gabezien edo urraketen berri izateko.	Urtero, martxoan.
		• Arlo bakoitzeko pertsonak izendatzea dagozkien adierazleei buruzko datuak biltzeko.	• Arduradunak izendatzea, arloz-arlo.	E4: Jarraipena eta sustatze lanak egiteko arduradunak izendatzea.	Talde teknikoko kideak egingo dituzte arduradun lanak, plana bultzatu eta zeharkakotasuna bermatzen baitute. KUDEAKETA atalari begira, legelari nagusiak eta legelariak egingo dituzte lan horiek, ekonomia kudeaketako teknikariaren laguntzarekin, bereziki langileei eta informatikariari dagozkien kontuetan. ERABILERA atalean BBNNetako protokolo eta komunikazio buruak egingo ditu arduradun lanak. LAN-HIZKUNTZAn Itzultzaileak izendatuko dira lanok egiteko.	Langileak, erabiltzaileak eta herritarrak.	Euskara Plan Estrategikoa prestatzeko azken fasean.	Talde teknikoak proposamena igorri ostean, dagokion organo politikoak berau onartzen duen ala ez erabakiko du. Proposamena bera egiten den ala ez ebaluatuko da.	Planean eta, bereziki irizpideetan jasotako egin beharrekoak eta jarraipenerako lanak norbaiti esleitzea eta, horrela, jasotako ekintzak egin ahal izatea.	Behin, 2025eko udaberrian, dokumentuak onetsiko diren ala ez onartzen denean.
		• Langile guztiei hizkuntza-irizpideak helaraztea eta haien lanpostuan nola aplikatu behar dituzten azaltzea komunikazio eraginkorraren bitartez.	• Komunikazioa sustatzea dokumentu hauen edukiari dagokionez.	E5: Hizkuntza-irizpideak onetsi ostean, komunikazio kanpaina bat diseinatzea eta aurrera eramatea, xede izanik haien eduki zehatza eta aplikagarritasuna langileei helaraztea.	Euskara talde teknikoa, BBNNetako protokolo eta komunikazio arduraduna buru izanik.	Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusiko langileak.	Hizkuntza irizpideak onartzen direnetik hiru hilabetera kanpaina bera diseinatzeari dagokionez; halere, komunikazio kanpaina behin besterik ez litzateke egingo, irizpideak indarrean dauden bitartean etengabe eskuragarri, ulergarri eta irisgarri izan beharko badira ere.	Irizpideen indarraldiaren lehen hilabeteetan aztertu beharko da betetze maila eta, epe motz eta ertainean aztertuko da ea ezagunak izatea lortu den, ea langileek ulertzea lortu den eta ea eskuragarriak eta irisgarriak diren.	Langileek hizkuntza-irizpideen berri izatea eta haien edukia ulertzea eta beti irisgarriak izatea.	Urtero, martxoan; lehen komunikazio kanpainaren osteko emaitzari bereziki erreparatuta.
				E6: Lehendakariari, Mahaiari edo/eta talde tekniko-politikoei edukiaren berri ematea.	Talde teknikoa eta organo politikoak.	Langileak, erabiltzaileak eta herritarrak.	Euskara Plan Estrategikoa prestatzeko azken fasean.	Azalpenak epe horretan emango zaizkie eta ulertu dela eta eskuragarri dagoela bermatuko da.	Taldeek eta erakundeko ordezkari politiko gorenek plan eta irizpide hauen jakitun izatea eta horiek bultzatzeko aukera izatea.	Urtero, martxoan.
		• Batzar Nagusietako arduradun politiko eta teknikoak proaktibotasunez aritzea plan estrategiko eta kudeaketa-planaren kudeaketan.		Aurretik jorratua.						
	1.0.3. Langileak	• Langileen arteko lan-harremanetako hizkuntz-ohituretan eragiteko dinamika berriak inplementatu.	• Plan estrategikoa eta kudeaketa-plana garatu, onartu eta komunikatu.	E7: Dokumentu guzti horiek langileei helarazi, azaldu, haien iritzia entzun eta beti eskuragarri izatea. Horretarako, komunikazio kanpaina bat martxan jarri.	Talde teknikoa, oro har, protokolo eta komunikazio buruari arreta berezia emanez, komunikazio lanak zuzentzen dituen aldetik, eta legelari nagusiari ere erreparatuz, idazkaritza nagusiko burua den neurrian.	Langileak.	Hizkuntza irizpideak onartzen direnetik hiru hilabetera kanpaina bera diseinatzeari dagokionez; halere, komunikazio kanpaina behin besterik ez litzateke egingo, irizpideak indarrean dauden bitartean etengabe eskuragarri, ulergarri eta irisgarri izan beharko badira ere.	Irizpideen indarraldiaren lehen hilabeteetan aztertu beharko da betetze maila eta, epe motz eta ertainean aztertuko da ea ezagunak izatea lortu den, ea langileek ulertzea lortu den eta ea eskuragarriak eta irisgarriak diren, baita langileek irizpideekiko zer-nolako jarrera duten.	Langileek hizkuntza-irizpideen berri izatea eta haien edukia ulertzea eta beti irisgarriak izatea, baita euskararen normalizazioari aldeko iritzia eta jarrera agertzea eta nolabaiteko konpromisoa hartzea, bakoitzaren gaitasunaren eta eragin eremuaren arabera.	Urtero, martxoan; lehen komunikazio kanpainaren osteko emaitzari bereziki erreparatuta.
			• Ekintza eta hizkuntza-irizpide argiak eta zehatzak ezarri eta haien berri eman.							
		• Langileengandik hurbilagoa eta eraginkorragoa den hizkuntza-normalizazioaren inguruko komunikazio-politika diseinatu.	• Langileen artean informazioa zabaldu (emailez).							
			• Langileen iritzia neurtu, urteko inkestaren bidez.							
		• Komunikazio horretan, onartutako plan estrategikoa eta kudeaketa-plana langileei jakinarazi, eta helburuak lortzeko lanabes guztiak haien eskura ipini.		E8: Inbentarioak egin. Langile berriari ongietorria egiterakoan ematen zaion dokumentazioaren inbentarioa egin.	Talde teknikoa, ekonomia kudeaketako teknikariaren lidergopean.	Langile berriak.	Plangintzaldia.	Inbentarioa egin den ala ez eta langile berriari dokumentazio horren berri ematen zaion ala ez.	Langile berriari ongi etorria ematen zaionean, berau euskaraz egiteko aukera izatea, dokumentazio guztia hizkuntza horretan ere badagoela ziurtatuz eta, tartean, hizkuntzaren kudeaketaren berri emanez.	Urtero, martxoan.
		• Hizkuntza-irizpideen inguruko informazio zehatza eman, langileen iritzia aintzat hartuz, plana ezagutu dezaten eta dagozkien betekizunak bete ditzaten.		E9: Aplikazio informatikoen inbentarioa egin. Eranskin bat prestatu, Arabako BBNNetan erabiltzen diren aplikazioak jasoz eta euskaraz daudenak izendatuz. Horretarako, eranskina prestatu.	Talde teknikoa eta informatika, ekonomia kudeaketako teknikariaren lidergopean.	Langileak.	Plangintzaldia.	Inbentarioa egin den ala ez, langileei horren berri eman zaien ala ez eta inbentario hori dagokionean eguneratzen den ala ez.	Langileek eskuragarri izatea zer-nolako aukerak dituzten baliabide teknologikoak euskaraz erabiltzeko	Urtero, martxoan.
				E10: Legelariek, ekonomia kudeaketako teknikariarekin urtero aztertuko dute ea hizkuntza-eskakizunak ongi esleituta dauden eta dagokion derrigortasun-indizea betetzen den	Legelariak eta ekonomia kudeaketako teknikaria.	Langileak.	Plangintzaldia.	Derrigortasun-tasa betetzen den ala ez, ezarritako HE eta haien derrigortasun datak egokiak diren ala ez eta horren inguruko gogoeta egiten den ala ez.	Urtero, aurrekontuak prestatzeko garaian, langileen eranskinean, lanpostuen zerrenda aztertuta.	Urtero, BBNNen aurrekontua prestatzerako garaian.
	1.0.4. Hizkuntza-gaitasuna		• Hizkuntza irizpideak ezagutarazi	E11: Antzematen diren gabeziak kontuan hartuta, euskalduntzea sustatzea, dauden bideen eta baliabideen berri emanez.	Euskara talde teknikoa.	Langileak.	Plangintzaldia.	Unean-uneko egoera aztertzen den ala ez eta baliabideeak proaktiboki zabaltzea.	Euskarazko komunikagarritasuna hobetzea langileen artean eta horretarako euskalduntzea sustatzea, dagoeneko eskuragarri dauden	Urtero, martxoan.
		• Langileak euskara lanerako eta harreman pertsonaletarako hizkuntza gisa erabiliz eroso egon daitezen lortzea.	• Langileen euskaraz lan egiteko gaitasuna hobetu, prestakuntza orokorra eta espezifikoa eskainiz	E12: Telefonoa hartzeko eta haien zerbitzuan erabiltzaileekiko izan ditzaketen harremanak euskaraz izan daitezela ahalbidetzeko oinarrizko komunikazio-gida sortu, kontsultarako baliabide gisa eskuragarri egon dadin. Esapide estandarrak jaso.	Euskara talde teknikoa, protokolo eta komunikazio buruaren eta itzultzaileen lidergopean.	Langileak.	Plangintzaldia.	Errepika daitezkeen komunikazio-egoerak identifikatzea eta horietan baliagarriak izan daitezkeen baliabideak prestatzea, euskaraz izan daitezen ahalbidetzeko, euskara maila altua beharrezkoa izan gabe.	Euskararen ahozko eta idatzizko komunikazioak areagotu, horiek erraztuz.	Urtero, martxoan.
	1.0.5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa		• Langileen karpeta digitalean jarri informazio guztia, onartzen denean.	Aurretik jorratuta.						
		• Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusiak jarrera proaktiboa landu, euskararen erabilera sustatzeko duen estrategiaren berri komunikatzeko eta hura praktikan jartzeko herritarren eta interes-taldeen (batzarkide taldeak, herritarrak, hornitzaileak...) aurrean.	• Batzarkide taldeen karpeta digitalean informazio guztia jarri, onartzen denean.	E13: Batzarkideei onartutako planaren berri ematea eta informazioa eskuragarri uztea. Informazio horren barruan hizkuntza baliabideak zerrendatu (itzultzaile neuronalak, hiztegiak on line, euskara ikasteko baliabideak...).	Euskara talde teknikoa, protokolo eta komunikazio buruaren lidergopean.	Batzarkideak eta batzarkide taldeak, erabiltzaileak diren neurrian.	Plangintzaldia.	Informazio hori batzarkideei helarazi zaien ala ez eta, hala badagokio, ezaguna dela ziurtatzea.	Euskararen normalizazio prozesuan eragile guztiak aintzat hartzea eta egiten diren urratsen berri ematea, prozesu horretan denon parte-hartzea sustatze aldera.	Urtero, martxoan.
			• Arabako Batzar Nagusien webgunean toki argi eta irekian jarri hizkuntza normalizazioari dagokion informazio guztia:	E14: Euskara Plan Estrategikoa argitaratzea eta webgunean toki ikusgarri batean eskuragarri uztea.	Euskara talde teknikoa eta informatika saila.	Herritarrak, oro har.	Plangintzaldia.	Informazio hori eskegi den ala ez eta eskuragarri dagoen ala ez.	Euskararen normalizazioaren arloan egiten den lana ikusaraztea, baliabideak ezagutzera ematea eta erakundeak auzi honen inguruan hartutako erabakien berri ematea.	Urtero, martxoan.
		• Hizkuntza-kudeaketaren arloko beste esperientzia batzuk partekatzeko ekimenetan parte hartu.	-Onartuko den Plana bera.	E15: Euskararen erabilera normalizatu eta biziberritzeko beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzea, erakunde gisa.	Euskara talde teknikoa, legelari nagusiaren lidergopean, presidentziarekin eta protokolo buruarekin koordinatuta.	Langileak, erabiltzaileak, hala badagokio, eta beste erakunde publiko batzuetako baliokideak.	Plangintzaldia.	Horrelako ekitaldirik egin den ala ez eta beroriek nola baloratu diren.	Euskararen normalizazioaren arloan beste erakunde publikoengandik ikastea eta gure praktika onak ezagutaraztea, ahaleginak norabide berean bideratzeko baliabideak eta prozedurak partekatuz.	Urtero, martxoan.
			-Hizkuntza-irizpideak, onartzen direnean.							
			• Hizkuntzaren normalizazioaren esparruan egin izan diren beste esperientzia batzuen berri izan.							
	1.0.6. Hizkuntza-klausulak	• Kontratuetan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak ezarri eta jarraipenerako sistematika bat zehaztu eta gauzatu.	• Pleguak euskaraz argitaratu.	E16: Dagokion kasuetan, hizkuntza-klausulak txertatzea kontratuetan, irizpideetan zehaztutakoaren arabera.	Legelariak.	Erabiltzaileak, herritarrak eta langileak.	Plangintzaldia.	Dagokion kasuetan hizkuntza-klausulak kontratuetan eta pleguetan sartu diren ala ez.	Hizkuntza-irizpideetan eta indarrean dagoen legedian ezarritakoa betetzea eta zerbitzu publikoak euskaraz eman ahal izatea edota bertan euskararen nolabaiteko presentzia ziurtatzea, hala dagokionean.	Urtero, martxoan.
				E17: Euskara edo hizkuntzen kudeaketa kontratuaren xedea den kasuetan, ahalegin berezia egitea kontratazio-espedientearen dokumentazioa euskaraz (ere) egon dadin, irizpideetan zehaztutakoaren arabera.	Legelariak.	Erabiltzaileak, herritarrak eta langileak.	Plangintzaldia.	Dagokion kasuetan euskararen presentzia bermatu den.	Euskararen presentzia bermatzea eta euskara lan-hizkuntza bezala egonkortzea, bereziki euskarak nagusitasuna izango duen zerbitzu edo izapideetan.	Urtero, martxoan.
			• Administrazio-kontratuetako jarraipena konprobatzeko prozedura jarri eta ez-betetzeen ondorio juridikoak zehaztu.	E18: Hizkuntza-klausulak kontratazioan txertatu. Kontratu baten pleguak eta gainontzeko dokumentazioa prestatzerako garaian, barne-azterketa bat egitea hizkuntza-klausulak txertatzea komeni den ala ez erabakitzeko eta, hala bada, zer tokitan sartu behar diren zehazteko. Horretarako, eranskina prestatu.	Legelariak.	Legelariak eta, hala badagokio, kontratazio espedientean parte hartuko duten idazkaritza nagusiko langileak.	Plangintzaldia.	Baliabide hori -eranskina- prestatu den ala ez eta eskuragarri dagoen ala ez.	Euskararen kudeaketa normalizatua egunerokoan txertatzea eta transbertsalki zerbitzu guztietan hizkuntza-klausulak sartu behar diren ala ez objektiboki baloratzeko tresna egokia eta azkarra izatea.	Urtero, martxoan.
2. ERABILERA										
2.1. Zerbitzu-hizkuntza										
	2.1.1. Irudia	• Behin-behineko errotulazioan arreta ipintzea gaztelania hutseko errotulurik jar ez dadin • Agerraldi instituzionaletan, euskara eta gaztelaniaren erabilera orekatua bermatzea. • Irudiari dagozkion hizkuntza-irizpideak betetzea, hizkuntza berdintasuna lortzeko.	• Agerraldi instituzionaletan, euskararen presentzia eta erabilera areagotu.	E19: Barne inbentario bat egitea Arabako Batzar Nagusietan euskararen paisaia linguistikoa jorratzen duena, errotuluak eta horiek bezalako seinaletikari so eginez. Euskararen presentzian gabeziak antzematen direnean, Idazkaritza Nagusiari jakinaraziko dizkio talde-teknikoak, dagozkion aldaketak bultza ditzan.	Euskara talde teknikoa, zeinak beste langileren batean eskuordetu ahalko dituen identifikatze-lanak.	Langileak, erabiltzaileak eta herritarrak.	Plangintzaldia.	Inbentario hori egin den ala ez, emaitza zein izan den eta, hala dagokionean, ekintzarik proposatu den ala ez.	Paisaia linguistikoa elebiduna izatea eta euskararen presentzia bermatzea, irizpideetan zehatutakoarekin bat etorriz.	Urtero, martxoan.
	2.1.2. Herritarrekiko harremanak	• Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea	• Irizpideak zehaztu							
			• Eskaintza aktiboa sustatu							
2.2. Lan-hizkuntza										
	2.2.1. Barne-harremanak	• Euskararen erabilera areagotzea, plangintza eta neurri zehatzen bitartez.	• Komunikazio-hizkuntzarako irizpideak ezarri	E20: Bilerak euskaraz egitea posible den kasuetan, irizpideen arabera eta horren jarraipena egitea.	Euskara talde teknikoaren lidergopean, langile guztiak eta erabiltzaileak ere bai.	Langileak eta erabitlzaileak.	Plangintzaldia.	Euskararen erabilera bileretan bermatu eta sustatu ahal izateko neurriak hartzen diren ala ez aztertzea eta, hala dagokionean, zer-nolako emaitzak lortu diren aztertzea.	Euskaraz lan egiteko aukera ematea eta euskararen presentzia laneko bileretara ere era normalizatuan zabaltzea.	Urtero, martxoan.
		• Hizkuntza irizpideak ezartzea.	• Mintza-talde bat sortu	E21: Erregistratzen diren dokumentu guztiak elebitan deskribatzen direla bermatzea eta euskaraz daudenak irizpideetan zehaztutakoaren arabera itzultzen direla bermatzea.	Erregistroa erabiltzen duten langileak eta itzultzaileak.	Langileak, erabiltzaileak eta herritarrak.	Plangintzaldia.	Dokumentu guztiak elebitan deskribatu diren ala ez aztertzea eta euskaraz daudenak itzuli diren ala ez ziurtatzea, eta guzti hori epe egoki batean egin den ala ez.	Euskararen presentzia bermatzea, euskaraz lan egiteko aukera izatea, langile/erabiltzaile guztion hizkuntza eskubideak errespetatzea.	Urtero, martxoan.
		• Kontzientziazioa piztea. Hizkuntza-ohitura berriak borondatean oinarritu, prestakuntza soziolinguistikoaren bidez, besteak beste.	• Inplikatzeko/Konprometitzeko barne-kanpaina martxan jarri	E22: Lehen hitza euskaraz! Kanpaina prestatzea, ezagutzera ematea eta bultzatzea.	Euskara talde teknikoa, protokolo eta komunikazio buruaren lidergopean.	Langileak.	Plangintzaldia.	Kanpaina egin den ala ez eta zer-nolako emaitzak izan dituen.	Euskarazko komunikazioa sustatzea, solaskideari lehenengo hitza euskaraz egin dakiola bultzatuz, horrela harremanak euskaraz izatea sustatzeko eta elkarrizketak euskaraz jarraitzea ahalbidetzeko.	Urtero, martxoan; bereziki, kanpaina egin osteko uneari erreparatuz.
	2.2.2. Kanpo-harremanak	• Hizkuntza-irizpideak eta prozedurak sektore publikoko erakundeekin eta enpresa pribatuekin euskarazko harremanak sustatzeko.	• Irizpideak ezarri eta haien segimendua egin.	E23: Hitzarmenak eta kontratuak bi hitzkuntza ofizialetan egotea.	Hitzarmenak eta kontratuak egiten dituzten sailak, bereziki legelariak.	Langileak, erabiltzaileak, herritarrak eta dokumentuak izapidetzean beste esku-hartzaileak.	Plangintzaldia.	Dokumentu ofizial horiek euskaraz dauden ala ez.	Euskararen presentzia bermatzea dokumentu ofizialetan eta euskararen normalizazioari begirako legedia betetzea.	Urtero, martxoan.
		• Hornitzaileen inguruko hausnarketa egin, zerbitzua euskaraz eskain dezaketen gehiagorekin kontaktatzeko.	• Euskaraz erantzuteko (behintzat lehen hitzekin) liburuxka egin	E24: Arabako BBNNek ematen dituzten diru-laguntzen inbentarioa egitea eta aztertzea onuradunek zer-nolako kudeaketa egiten duten euskararekin.	Diru-laguntzak emateko prozeduran esku-hartzen duten sailak, bereziki legelariei eta protokoloburuari erreparatuta.	Herritarrak.	Plangintzaldia.	Dirulaguntzetan hizkuntzen kudeaketa aintzat hartu den ala ez bermatzea eta horri nolabaiteko jarraipena egin zaion ala ez.	Arabako BBNNek diruz laguntzen dituzten ekimenak eta entitateak hizkuntzen kudeaketa egokia egitea ekintza horietan.	Urtero, martxoan.
				E25: Gainontzeko erakundeekin harremanetan jartzean euskararen presentzia bermatzeari jarraipena egitea, irizpideetan zehaztutakoaren arabera.	Langileak, kanpora begira lan egiten dutenak bereziki.	Solaskideak.	Plangintzaldia.	Harreman horiek zer hitzkuntzatan hasten ditugun eta zeinetan jarraitzen diren, harremanak nork hasi dituen kontuan hartuta eta erakunde bakoitzaren arabera.	Beste erakunde batzuekin ditugun harremanak euskaraz izatea posible den kasuetan, hizkuntza-irizpideetan zehaztutakoari so eginez.	Urtero, martxoan.
			• Identifikatu eta zerrendatu harremanak euskaraz izan nahi dituzten erakundeak.	E26: Irizpideetan zehaztutakoa aintzat hartuta, protokolo bat prestatzea ekitaldiak antolatzeko; bertan, euskararen presentzia bermatuko da eta hasieratik aintzat hartuko da.	Euskara talde teknikoa, protokolo eta komunikazio buruaren lidergopean.	Langileak, erabiltzaileak, herritarrak eta beste erakundeetako baliokideak.	Plangintzaldia.	Protokolo hori prestatu den ala ez eta horren inguruko zer jarraipen edota betekizun-maila dagoen.	Arabako BBNNek antolatutako ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea eta sustatzea, hizkuntza-irizpideetan zehaztutakoaren arabera.	Urtero, martxoan.
	2.2.3. Prestakuntza	• Prestakuntza abian jartzea	• Prestakuntza-jarduerak martxan jarri	E27: Prestakuntza euskaraz eskaintzea eta horren jarraipena egitea, irizpideen arabera.	Euskara talde teknikoa, ekonomia kudeaketako langilearen lidergopean.	Langileak, eta hala dagokion kasuetan, erabiltzaileak.	Plangintzaldia.	Prestakuntza euskaraz eskaini den edota eskaintzeko ahaleginik egin den eta, hala badagokio, eskariaren eta eskaintzaren balorazioa egitea.	Prestakuntza euskaraz ematea, posible den kasuetan, hizkuntza-irizpideetan xedatutakoaren arabera, betiere lehenetsita langile/erabiltzaile euskaldunak xede dituzten formakuntzak	Urtero, martxoan.
		• Bereziki lanpostu bakoitzaren funtzioetan oinarrituta, Batzar Nagusiek laguntza eta baliabideak eskaintzea langileek euskaraz lan egin dezaten.	• Euskaraz lan egiten duten langileei prestakuntza, lehen aukera gisa, euskaraz eskaini. Nahi duten langileei euskarazko prestakuntza eskaini.	E28: Batzarkidearen gida edo Manual del procurador delakoa berrikusi eta erabat euskaratu, batzarkideei egiten zaien ongietorrian euskararen tratamendua txertatzeko.	Euskara talde teknikoa, legelari nagusiaren lidergopean.	Erabiltzaileak: batzarkide berriak.	Plangintzaldia.	Gida hori egin/eguneratu den eta euskaraz eskaintzen den, baita euskararen kudeaketa jorratzen duen ala ez.	Batzarkide berriei ongietorria emateko dokumentazioa prestatzea eta eguneratzea, dokumentazio horretan, besteak beste, aipamena eginez hizkuntzen kudeaketari eta zerbitzuak euskaraz emateari.	Urtero, martxoan.
	2.2.4. Baliabide informatikoak	• Euskarazko aplikazio informatikoen sustapen-lanari ekin.	• Aplikazio informatikoen euskarazko bertsioen erabilerari buruzko diagnostiko bat egitea.	E29: Sare sozialetan eta webgunean euskararen lehentasunezko presentzia bermatzen den ziurtatzeko jarraipena egitea.	Euskara talde teknikoa, protokolo eta komunikazio buruaren lidergopean.	Langileak, erabiltzaileak eta herritarrak.	Plangintzaldia.	Sare sozialetan egiten den euskararen kudeaketa.	Sare sozialetan euskararen kudeaketa egokia egitea, hizkuntza-irizpideetan zehaztutakoa errespetatuz.	Urtero, martxoan.
		• Euskarazko aplikazioen erabilerak sor litzakeen arazoak detektatu eta haiek konpontzeko prestakuntza eskaini		E30: Aplikazio informatiko berrietan euskara by design kontuan izatea.	Euskara talde teknikoa, informatikarekin batera eta, bereziki, legelariekin batera, kontratazio berrietan duten esku-hartzea bitarte dela.	Langileak eta erabiltzailea.	Plangintzaldia.	Informatika produktu berrietan eta aplikazioetan euskara jatorriz aintzat hartzeko ahalegina egiten den aztertzea.	Aplikazio berrietan euskararen presentzia bermatzea eta hori hasietatik egiten saiatzea, Arabako BBNN esku dagoenaren baitan.	Urtero, martxoan.
		• Proiektu, ekimen edo tresna berriren bat sortzerakoan hizkuntzaren aldagaia modu sistematikoan izan gogoan. (K.I.)								
	2.2.5. Sortze-hizkuntza	• Langileek euskaraz sor dezaten trebatzeko plangintza abiaraztea.	• Trebatzeko plangintza egin	E31: Ikastaro bat egitea langileok elebitan dokumentazioa ekoitzi eta zuzentzeko, itzulpengintza zerbitzuaren erabilera arrazoinalizatua egite aldera.	Euskara talde teknikoa, itzultzaileen lidergopean.	Langileak.	Plangintzaldia.	Ikastaroa egin den ala ez eta zer-nolako eragina izan duen.	Testuak ekoizten direnetik elebitan egotea sustatzea, Itzulpengintza Zerbitzuaren erabilera egokia egiteko, euskararen presentziari kalte egin gabe.	Urtero, martxoan.
		• Agiri gehiago euskaraz sortzea		E32: Langile guztiek maiz egiten dituzten izapideei begira, dokumentu estandarizatu elebidunak egitea eta daudenen inbentarioa aurrera eramatea.	Euskata talde teknikoa, itzultzaileen lidergopean.	Langileak.	Plangintzaldia.	Dokumetu horiek prestatu diren ala ez eta zer-nolako eragina izan duten.	Testu estandarizatuak prestatzea, euskara gehiago, gehiagok eta gehiagotan erabiltzeko denbora aurreztuz.	Urtero, martxoan.